

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

5904

EBAZPENA, 2018ko azaroaren 22koa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen dekretu-proiektua.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2018ko azaroaren 22ko Agindua-
ren bidez, aldez aurretiko onespena eman ziztaion Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa
garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legea garatzen duen dekretu-proiektuari.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 8.1 artikuluan
xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta interes legitimoak ukitzen dituzten xedapen oro-
korrek entzunaldi-izapidea izan behar dute. Halaber, xedapenen izaera aintzat hartuta komeni
baldin bada, jendaurrean jarriko dira.

Alde horretatik, dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko aginduan adierazita dago jendau-
rreko izapidea egitea egin behar zela izapidetzen ari zen arauan interesa duten eragile sozialen
ahalik eta parte-hartzerik handiena bermatzearen.

Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta
funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko
4/2015 Legea garatzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzea, 20 egun baliodunetan, ebaz-
pen hau EHAAan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Lehengo apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak egite aldera,
dekretu-proiektuaren testua eskuragarri egongo da Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan
(www.euskadi.eus) eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean
(www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus).

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 22a.

Ingurumen Administrazioaren zuzendaria,
IVAN PEDREIRA LANCHAS.